

Bortzirietako ikastetxeetan euskararen erabilera sustatzeko diru laguntzak: oinarriak

1. Oinarrien xedea. Oinarri hauen xedea da Bortzirietako ikastetxeetan euskararen erabilera sustatzeko jarduerak diruz laguntzeko modua arautzea.

2. Diru laguntzaren baldintzak. Bortzirietako Haur eta Lehen Hezkuntzako D ereduko ikastetxeei zuzenduak dira laguntza hauek, ikasleen artean euskararen erabilera indartzeko bideratutako egitasmoetarako, hain zuzen ere.

Diruz lagunduko diren jarduerak eskola orduetan baina ikasgelaz kanpo (jolas orduetan, sarrera-irteera orduetan, jantokiko garaian...) euskararen erabilera eta motibazioa indartzeko ekintzetarako izanen dira.

Deialdi honen barruan aintzat hartuko dira euskararen erabilera eta motibazioa modu ludikoan eta dinamizatuan indartzeko aurkezten diren egitasmoak.

Ez dira diruz lagunduko:

- a) Materiala.
- b) Bidaiak (euskararen sustapenaren ikuspuntutik interes berezia dutenak izan ezik).
- c) Jarduera gastronomikoak.
- d) Kultur eta kirol ekitaldi solteak.

Halaber, ez dute diru laguntzarik hartuko euskararen erabilera sustatzeko eremu zehatzean interesa ez duten jarduerak, ez eta Bortzirietako Euskara Mankomunitatearen bertze edozein esparrutan diru laguntza hartu ahal duten horiek, edota, oro har, Bortzirietako Euskara Mankomunitatearen jarduketa esparruaren barruan ez daudenek ere.

Deialdi honek 2011-2012 ikasturtean zehar burutuko diren ekintzak hartuko ditu kontuan.

3. Eskabideak aurkezteko epea. Eskabideak egiteko epea 2012ko urtarrilaren 25etik 2012ko otsailaren 10era arte, bi egunak barne, izanen da.

4. Aurkeztu beharreko dokumentazioa. Deialdi honetako laguntza eskuratzeko ikastetxeek eskabidea egin behar dute, eranskinean azaltzen den eredia baliatuz.

Eskabide orriarekin batera honako dokumentazio hau aurkeztu beharko dute:

- a) IFKaren fotokopia.
- b) Egin nahi den jardueraren gaineko plangintza zehatua.
- c) Jarduerak sortutako diru sarreren eta gastuen gaineko aurrekontu osoa, kontzeptuak eta kantitateak ongi zehaztuta.

Dokumentazioa Bortzirietako Euskara Mankomunitatean (Herriko Plaza 1, 2. 31790 Arantza) aurkeztu behar dute edo Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 38. artikulua aurreikusitako edozein lekutan.

5. Aurkeztutako eskabidean egindako okerrak zuzentzea. Eskatzaileak aurkeztutako dokumentazioan okerrik dagoela edo agiriren bat falta dela ikusten bada, hamar egun emanen zaizkio eskatzaileari akatsak zuzentzeko edo agiriak osatzeko. Epe hori igaro eta akatsa zuzendu edo agiriak osatu ez badira, eskatzaileak eskaeran atzera egin duela ulertuko da.

6. Ebazpena. Deialdi honetako diru laguntzak esleitzeko erabakia Bortzirietako Euskara Mankomunitateko Batzorde Erabakitzaileak hartuko du, euskara teknikariaren txostena ikusita. Erabaki hori interesatu guztiei jakinaraziko zaie.

7. Diru laguntzaren zenbatekoa. Aurrekontuetan gehienez ere aurreikusi den diru esleipena, behar den epean eta behar den moduan aurkezten diren eskaeren artean banatuko da, deialdiko baldintzak betetzen dituzten artean betiere. Diru laguntza banatzeko, aintzat hartuko da eskatzaile bakoitzak aurkeztutako proiektuaren berezko diru sarrerak (hau da, izan ditzaketen bertze diru sarrerak ez dira aintzat hartuko), eta, horietan oinarriturik, mankomunitatearen aurrekontuetan aurreikusi den diru esleipena modu proportzionalean banatuko da eskatzaileen artean.

8. Diru laguntzaren ordainketa. Emandako diru kopurua bi zatitan ordainduko da, ikastetxeak horretarako zehazten duen kontu korrante zenbakira eginiko banku transferentzia bidez:

- %50, diru laguntza emateko erabakia jakinarazten den unean.
- Gainerako %50, ikastetxeek jardueren memoria, balorazioa eta gastu eta sarrerak justifikatzen dituzten fakturak aurkeztu ondotik. Dokumentazio horrekin batera, zinpeko aitortpen bat aurkeztu beharko dute, adieraziz haien diru sarrerak aurkeztutako dokumentazioan agertzen diren horiek direla, eta ez gehiago; eta edozein kasutan sarrera horiek ez direla gastuak baino handiagoak izan.

Ikastetxeek aipatutako dokumentuak Bortzirietako Euskara Mankomunitatean aurkeztu beharko dituzte, 2012ko ekainaren 30a baino lehen.

Ikastetxeek justifikatutako gastuak aurrekontuan azaldutakoak baino txikiagoak badira, hein berean murriztuko zaie diru laguntza; doitze hori bigarren ordainketan egingen da.

10. Bateragarritasuna. Deialdi honetako diru laguntzak bateragarriak dira bertze erakunde publiko zein pribatuk helburu berberaz emandakoekin, betiere gain-finantzaketarik gertatzen ez bada.

11. Datuen babesa. Eskatzaileen datuak babesteari buruzko abenduaren 23ko 15/1999 Lege Organikoan ezarritakoaren arabera tratatuko dira.

12. Auzibidea. Deialdi honetan aurreikusten ez den orotarako Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea eta Diru Laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legea aplikatuko dira.

13. Errekurtsoak. Deialdi honen aurka, baita oinarri hauen aurka eta haien betearazteko hartzen diren administrazio ebazpenen aurka ere, errekurtsio hauetako edozein aurkezten ahalko da, aukeran:

- a) Berraztertzeko errekurtsua, administrazio egintzaren organo egileari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik hasita.
- b) Goiti jotzeko errekurtsua, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratzen denetik aitzina.
- c) Administrazioarekiko auzi errekurtsua, administrazioarekiko auzien Epaitegiari zuzendua, bi hilabeteko epean. Errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta biharamunean hasiko da epe hori.

Arantzan, 2012ko urtarrilaren 17an
Mankomunitateko lehendakaria
Jaime Iturria Mitxelena

Bortziritako ikastetxeetan euskararen erabilera sustatzeko diru laguntzak:
eskaera orria

Erakunde eskatzailea	
Izena	
Helbidea	
Herria	PK
Telefonoa	E-posta
Arduraduna	
Izen-deiturak	
Egitasmoaren ezaugarriak	
Izenburua	
Noiz egingen den	
Non egingen den	
Nori zuzentzen zaion	
Xedea	
Egitarau zehatza (edukia, azpiegiturak eta abar)	
Aurreikusitako diru sarrerak eta gastuak (azalpena eta kopuruak)	
Sarrerak	
Proiektuaren berezko diru sarrerak	
Erakunde Publikoen ekarpena	
Erakunde pribatuen diru laguntza	
Bertze (zehaztu zein)	
Guztira sarrerak	
Gastuak	
Guztira gastuak	
Lekua eta data	
Arduradunaren sinadura eta erakundearen zigilua	